

El-SEV incorpora su producción editorial al mercado electrónico

Si bien la Sociedad viene posibilitando, desde su incorporación a Internet en junio de 1996, la adquisición de libros y otros materiales a través de la red, la continua actualización de su presencia electrónica ha llevado a Eusko Ikaskuntza a crear un espacio especialmente destinado a la venta de publicaciones, un espacio a través del que, además, El-SEV proporciona otros servicios habitualmente demandados por parte de los socios y del público en

general. Accesible a través de la dirección www.euskoshop.com, sus páginas web consisten en una tienda virtual donde puede consultarse el catálogo de publicaciones de Eusko Ikaskuntza y hacer efectiva la propia compra de los volúmenes, pero donde, igualmente, pueden adquirirse libros de otras editoriales. La oferta se completa con un servicio de búsquedas que puede ser utilizado en el caso de que se desee comprar algún libro ajeno a *euskoshop* o

2000 martxoa/marzo/mars
Nº 99 zenb.

localizar incluso publicaciones de una determinada materia y de referencias exactas desconocidas por el cliente.

Otra novedad aportada por el sitio web es la puesta en marcha de servicios de investigación genealógica y heráldica, dirigidos a particulares e instituciones, y desempeñados por especialistas en la materia, con un tratamiento personalizado e individualizado de cada solicitud y siguiendo rigurosos criterios científicos.

En cuatro idiomas.

Además del euskara, el castellano y el francés, puede utilizarse también el inglés en el acceso y el uso de los servicios ofertados por *euskoshop*.



Elkarlanerako hitzarmena Eusko Ikaskuntza eta Mondragón Unibertsitatearen artean

Zenbait ekimen zehatzek azken garaioan isladatu dutenez, ez da gaurko berria Eusko Ikaskuntza eta Mondragón Unibertsitatearen arteko harremana. Ongi ezagutzen dute elkar erakunde biek eta ezagupen horren ondorioa dugu, hain zuzen, martxoaren 3an sinatu zuten elkarlanerako hitzarmena. Izan ere, bien artean bultzatzen diren proiektuen jarraioa ikusita, beharrezkoa jotzen zen amankomuneko lanak arautzeko tresna ezartzea. Eta hori bera egin zuten Juan José Goiriarena de Gandarias El-ko lehendakariak eta Javier Retegi MU-ko errektoreak Donostiako Miramar Jauregian aurkezturiko akordioa izenpetzerakoan.

Agiriak gogorarazten duenez, emankorra eta sendoa izan da, 1978tik gaur arte, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Herriko unibertsitateen arteko lankidetzak. Hori dela medio, ehundaka ikerlari gazte aritu izan da azken hogeitun euskal zientzia eta kulturaren suspertketa eta sendoketa eragiten, iharduera hori oso onuragarria suertatu delarik zientzia komunitatearentzat. Hortaz, bost urteko iraupena izango duen aipaturiko itunaren bitartez, Eusko Ikaskuntzak eta Mondragón Unibertsitateak elkar ezagutzen dute ikerkuntza goi zentru gisa eta bertan hitzartu-



takoari jarraituz, elkarri erraztuko diote beren ikerketa-ondarearen erabilera.

Master eta graduatuondokoak
Argitaipen alorrean ere lankidetzak sustatuko da, bai eta master eta graduatuondoko programen sortze eta gauzatzeko ekimenei dago kienez, bakoitzaren prozedura-arauak onartzen badira ere, bien ekimeneen errentagarritasuna eta erregularitasuna lortzea baita

hitzarmenaren helburu orokorra. Bestalde, Mondragón Unibertsitateak kide bat izendatuko du Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren (RIEV) Erredakzio Batzorderako. Eusko Ikaskuntzak, bere aldetik, MUko liburutegiaren euskal fondoak sendotzen lagunduko du, bere fondoak eskainiko dizkiola doan. Arrasateko areto nagusiaz gain, Fakultateetako liburutegiek ere hartuko dituzte El-ren argitaipenak.

EUSKO IKASKUNTZA
INTERNET

www.eusko-ikaskuntza.org
www.euskonews.com

NOUVEAUX MEMBRES

Eusko Ikaskuntza. BULLETTIN D'INSCRIPTION

Adhérer à Eusko Ikaskuntza c'est la possibilité de rencontrer les meilleurs moyens pour travailler pour notre culture. Remplir le coupon joint et l'envoyer dans un des bureaux de la Société. Nous rentrerons rapidement en contact avec vous.

Nom..... Prénom.....
Adresse..... Code Postal.....
Ville..... Téléphone.....
Eusko Ikaskuntza: FACULTE PLURIDISCIPLINAIRE,
29-31, cours du Comte de Cabarrus,
64100 BAIONA.

Cotisations: 200
Frs. pour les
membres ordinaires.
50 Frs. pour les
membres étudiants.

Les Sections d'El-SEV:

anthropologie,
arts plastiques,
sciences naturelles,
sciences économiques,
cinématographie,
droit,
éducation, folklore,
langue/littérature,
moyens de communication,
musique,
préhistoire/archéologie,
sciences médicales, sciences physiques et mathématiques

Landarako irtenaldiak lurralde antolaketari buruzko ikastaroan

Aprender sobre el terreno.

Las salidas de campo constituyen una parte importante del curso de postgrado sobre ordenación y gestión del territorio.

Lurralde antolaketa eta kudeaketari buruzko graduatuondokoan garrantzi berezia dute irakas-plannaren barruan antolatzen diren landarako irtenaldiak, ikasgeletan harturiko prestakuntza teorikoaren osagaiak baitira. Beheko irudia azken hilabeteotan burutu ikustaldietako bati dagokio. Ikasleak Donostian, Iparraldean, Gasteizen, Arabako Lautadan eta Bilbo Handian izan dira dagoeneko, ikasturtea amaitu baino lehen Gernika-Urdaibai eta Nafarroako Pirinioak bisitatuko

dituztelarik. Ekainaren 30era arte iraungo du ondoz ondoko hirugarren urtez antolaturiko ikastaroak. 250 ordutako egitaraua amaitu ondoren, eta Eusko Ikaskuntzaren goi mailako ikastaro guztietan ezartzen denari jarraituz, lan zientifiko bat prestatu beharko dute ikasle guztiek El-k eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I departamenduak ematen duten titulua eskuratu ahal izateko.

Datozen hilabeteetan, bestalde, bi mahainguru burutuko dira ere graduatuondokoaren barnean, bat "Azpiegiturak eta Lurraldearen antolaketa" izenburupean eta Euskal Herriko lurraldearen gaur eguneko egoera eta etorkizunari buruzkoa bestea. Ohi bezala, izango dira ere hainbat tailer monografiko ekainaren 30ean Donostiako Miramar Jauregian egingo den itxiera ekitaldia baino lehen.



Nuevo curso en Bilbao sobre informática musical

La Escuela de Magisterio de la Universidad del País Vasco acogerá nuevamente un curso intensivo sobre informática musical, que, organizado por Eusko Ikaskuntza, se desarrollará entre los días 25 y 28 de abril. Las clases correrán a cargo del compositor Angel Enfedaque y comenzarán con una introducción, para continuar con un bloque sobre la edición de audio.

En una tercera y cuarta partes, se abordarán las cuestiones relacionadas con la secuenciación y la edición de partituras, antes de pasar a examinar las consecuencias derivadas de la aparición de Internet.

El plazo de inscripción permanece abierto. Se limitará el número de alumnos con el fin de asegurar la calidad de la docencia.



Literatura escrita por mujeres. Eusko Ikaskuntza presentó, el pasado 29 de febrero, el último número de su colección "Oihenart", un trabajo científico llevado a cabo por Mari Jose Olaziregi mediante la beca Angel de Apraiz. El libro, que aborda tanto la situación de la literatura vasca escrita por mujeres como la evolución experimentada por la crítica feminista en diferentes países, aporta también un capítulo de análisis sobre las obras de dos escritoras y un compendio bibliográfico. Además de la autora, participaron en la presentación del estudio Ana Toledo, vicepresidenta por Gipuzkoa de El-SEV, y Patri Urkizu, presidente de la Sección de Lengua y Literatura.

El-Euskadiko Kutxa VI. Sarirako proposamenak, apirilak 30 arte

Geroz zabalagoa eta kualifikatuagoa den zientzi komunitate batean aukera daitezkeen guztien artean, ibilerarik gaile-na burutu duen pertsona hautatzea zaila izan arren, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak konpromezu garrantzitsu hau hartu zuten bere egunean curriculum nabarmenena duen pertsonari ematen zaion Saria eratzeko. Golardoa erreferentzia izateko eta hala irauteko xede garbiaz sortu zen, hasieran Humanitateak eta Gizarte Zientziak zirelarik kontuan harturiko alor bakarrak, iazko agerraldian Kultura eta Arteetara zabaldu bazen ere. Seigarren edizio honetatik aurrera, berriz, saria txandaka emango da: urte bikoitietan alor batera zuzenduko da eta bestera bakoitietan.

Hala beraz, aurtengo Sariak Humanitate eta Gizarte Zientzien alorrean diharduten eragile ospetsuak ditu helburu. Oraingoko honetan ere zazpi unibertsitatetako errektoregoen ordezkariak eta ospe oneko zenbait adituk osatuko dute lehiaketaren epaimahaia, saria hiru milioi pezetako kopuruaz hornitua egongo delarik.

Erakunde sortzaileek bikaintasunaren balioa sustatu nahi dute ikertzaileengan, bai

modus operandi bai eta ondorioei dagokienez.

Apirilaren 30ean amaitzen da proposamenak hartzeko epea. Gero, unibertsitateetako ordezkariak (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustukoa, Nafarroako Unibertsitatea, Pabe eta Adour Herrialdeetako, Mondragón Unibertsitatea eta UNED), zientzia ebaluaziorako aditu batek, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorren dauden erakundeetako ordezkari batek, Euskadiko Kutxako zuzendari nagusiak eta El-ko lehendakariak, hautagaien perfila balioztatzeko ardura izango dute, horiek beren obra orokorraren bidez Euskal Herriko zientzia garapena modu eraginkorrez sustatu dutenariakoak izan behar dutela beti ere.

Erabakia

Proposamenak Eusko Ikaskuntzaren Bulego Nagusietara (Miramar Jauregia. 20007 Donostia) bidal daitezke. El-ren edozein lurralde Bulegotan eska daitezke izangaiaren merituek eta haren curriculum vitae-a aurkezteko, proposatzaileak bete beharreko inprimakiak. Epaimahaiaren erabakia maiatzean jakinaraziko da.

Hasta el 30 de abril

pueden ponerse a candidatos al Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral, que, en su sexta edición, está dirigido a los investigadores y personalidades de la cultura que operan en el campo de las Humanidades y de las Ciencias Sociales.



La documentación digital, a estudio en los cursos de verano

La aportación de Eusko Ikaskuntza a los cursos de verano de la UPV-EHU se concretará este año en el programa que, bajo el título "La información virtual: del documento original al digital", dirigirá Arantza Cuesta Ezeiza (Mediateka de El-SEV). Trece expertos pasarán por las aulas del Palacio Miramar de San Sebastián a lo largo de tres jornadas, que tendrán lugar, en horario matutino, los días 26, 27 y 28 de junio. En la primera, que dará comienzo con una ponencia de Javier Díaz Noci titulada "El libro: del papel al medio digital", se hablará también de la documentación musical (Angel Enfedaque), la imagen (Arantza Cuesta) y los servi-

cios de documentación (Pedro Hípola) en el medio digital. El profesor Isidro Aguillo abordará, el 27 de junio, el análisis documental en Internet, las técnicas de documentación e indexado y los recursos para la documentación en la red. Por su parte, Pedro Hípola disertará sobre los gestores de bases de datos documentales en Internet. Para el tercer día se anuncia la presentación, a cargo de Idoia Estornés, de la Enciclopedia Auñamendi Digital, producida por El-SEV a través de un convenio especial. Isabel Hernando se centrará en la protección del derecho de autor y en la legislación sobre propiedad intelectual.

Arrantza eta itsasoari buruzko jardunaldiak Donibane Lohitzunen

Eusko Ikaskuntzaren Antropologia-Etnografia Sailak antolatutako udaberri partean burutuko diren itsas jardunaldiak. Egitaraua maiatzaren 11 eta 12an garatuko da, goizez eta arratsaldean, Donibane Lohitzuneko portuko erretegiaren Saioak El-ko bazkideei, unibertsitate irakasle eta ikasleei, ikertzaileei, profesionaleri eta arrantza eta itsaso arloarekiko interesa duten guztiei daude zuzendurik, izena emateko epea martxoaren 27an amaitzen delarik.

Komunikazioak

Data berberean bukatzen da topaketa hauetan beren lanak aurkeztu nahiko luketen ikerlariaren komunikazioen proposamenak aurkezteko epea. Hauek Elkarteak ezarritako inprimakien bitartez egin behar dira eta edukinaren inguruko hogeitazero laburpena jaso behar dute. Jardunaldiak irekiera saio batekin hasiko dira. Hitzaldiak aditu eta eztabaidetan esku hartzeaz gain, hainbat ekitaldi sozialetan -besteak beste, itsas munduarekin loturiko bisitaldi batetan- parte hartzeko aukera izango dute bertaratutako guztiek.

Avec l'aide d'EI-SEB Iparralde, sept membres développeront des recherches

Sept projets affectés dans des disciplines très diverses comme la Médecine, le Droit, l'Histoire, la Psychologie, la Littérature ou la Linguistique, recevront des aides à la recherche par Eusko Ikaskuntza-Société d'Etudes Basques-Iparralde.

Tous les projets sont présentés individuellement. Au total, le budget destiné à ce chapitre atteint 45000 francs, qui seront répartis entre les promoteurs des travaux.

Les titres suivants ont été sélectionnés: "Comparatif du devenir des patients victimes d'accident vasculaire cérébral au Pays Basque (Bayonne, Saint-Sébastien, Pampelune)" (Ana Amezketa); "Haur trisomikoa elebiduna izan daiteke" (Itziar Barriola); "Les traits de bonne correspondance entre les provinces maritimes basques aux XVI et XVII" (Caroline Darricau Lugat); "Hérelle et le théâtre basque. Du rite au rire. Le discours des mascarades souletines" (Eric Georges Dicharry); "L'application du Code civil en Basse Navarre dans la transmission du patrimoine familial" (Dominique Haran); "Les manifestations de solidarité dans



le Pays Basque sous l'Ancien Régime" (Jean Pierre Harismendy); et "Bilinguisme et biculturalisme à l'école et dans les familles au Pays Basque" (Maialen Pery).

Les propositions de recherche ont été examinées par un jury de la Société qui s'est réuni le 12 février dernier à la Maison pour Tous de la Ville d'Anglet. Ce comité de sélection a étudié la répartition des aides en tenant compte des critères d'évaluation utilisés par les Sections Scientifiques d'Eusko Ikaskuntza.

Assemblée générale

La session s'est déroulée avant l'assemblée générale annuelle où participèrent les membres d'Iparralde (voir la photo qui accompagne ce texte).



Pendant cette réunion a caractère ordinaire l'ordre du jour habituel a été abordé. Alain Lamassoure, maire d'Anglet, président de la Communauté d'agglomération BAB et député européen, a assisté à l'assemblée.

Jornada sobre las regiones en la conferencia intergubernamental

Analizar la postura que el Comité de las Regiones pretende defender en la Conferencia Intergubernamental de 2000 es el principal objetivo del encuentro que, organizado por Eusko Ikaskuntza, tendrá lugar el próximo día 14 de abril en San Sebastián. Se trata de una iniciativa del grupo Europa-Euskalerrria, integrado en la Sección de Derecho de EI-SEB, con la que, utilizando como referente la resolución adoptada por el Pleno del Comité en junio de 1999, quiere propiciarse tanto el análisis teórico, con la participación de profesores universitarios de reconocido prestigio en la materia, como la reflexión política. Para abordar ésta, se contará con la presencia de representantes institucionales de la Comunidad Autónoma Vasca, de Cataluña y del propio Comité de las Regiones.

La jornada se desarrollará en el Palacio Miramar de San Sebastián y dará comienzo a las 9.00 horas con un acto inaugural. A continuación tendrá lugar la conferencia de S. Van den Brande, ponente de la Comisión de Asuntos Institucionales del COR, que llevará por título "Balance de los seis

años de funcionamiento del COR: ¿Influencia o irrelevancia? Planteamientos de futuro". A su disertación seguirá la de Iñaki Rica, director de Asuntos Europeos del Gobierno Vasco ("Expectativas de la Comunidad Autónoma Vasca ante la próxima CIG en relación al COR: ¿Continuar con la representación simbólica o exigir una participación real?"). Por su parte, Joaquim Llimona I Barcells, director general de Relaciones Exteriores de la Generalitat, expondrá las propuestas para la Conferencia Intergubernamental. Tras esta intervención se dará paso a un coloquio.

La sesión vespertina se iniciará a las 16.00 horas. El primero en tomar la palabra será Rafael Bustos Gisbert, profesor titular de la Universidad de Salamanca. También expondrá su ponencia "Conflicto de intereses dentro del COR: intereses locales versus intereses regionales". José Luis Castro Ruano, profesor titular de la Universidad del País Vasco.

La sesión se cerrará nuevamente con un debate abierto a la participación de conferenciantes y público.

Beka Katalunian

Eusko Ikaskuntzak (EI) eta Institut d'Estudis Catalans-ek (IEC) hala katalan nola euskal kulturaren alderdi jakin batez interesaturiko gazteei zuzenduriko ikasketa-laguntza biren zuzkidura iragarri dute aurten ere. EI-k deituriko bekaren zenbatekoa 600.000 pezetakoa da eta katalan hizkuntzadun eskualde batean egin beharreko hiru hilabeteko egonaldi bakarraren gastuak ordaintzeko da.

Ikasketa-laguntzarako izangaiak ikertzaile gazteak izango dira, 1988-1998 urteetan, biak barne, unibertsitate-fakultateetan edo goi mailako ikastetxeetan lizentziatuak edo graduatuak. Izangaiak Eusko Ikaskuntzaren edozein egoitzatan aurkez daitezke 2000eko apirilaren 30a baino lehen.

Dokumentazioa

Eskaera egiterakoan ondoren azaltzen den dokumentazioa aurkeztu behar dute interesatuek:

- 1.- Tituluaren kopia edo unibertsitate-agiri ofiziala
- 2.- Curriculum vitae (bi orrikoa gehienez)
- 3.- Eskatzailearen gaitasun zientifikoa erantzunzkizuna hartzen duen unibertsitateko irakasle baten edo EI-ko edo IEC-ko kide baten abala
- 4.- Lan-egitasmoa eta horren helburuei eta burutzeko behar diren baliabideei buruzko laburpena (hiru orrikoa gehienez)
- 5.- Eskatzailearen agiri bat non, laguntza berari emanez gero, hiru hilabeteko egonaldia egiteko konpromezua hartzen duen, esleipen datatik sei hilabeteren barne.

Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-ek laguntzaren tutore bat izendatuko dute haren jarraipen zientifikoa egin dezan. Erakunde biek izendaturiko bi epaimahaikidek deialdi honetan aukeratuak izango direnak erabakiko dituzte ekaina baino lehen, erabakian bi kulturen arteko azterketa konparatiboak aurkezten dituzten proiektuek lehentasuna izango dutelarik.

La jornada

cuenta con la ayuda de la Dirección para Asuntos Europeos del Gobierno Vasco.



EUSKO
IKASKUNTZA

Eusko Ikaskuntza sareko merkatu birtualean

Ez dago dudarik etorkizunean, eta oso epe motzera begira, Internet etxe guztietan sartuko dela. Lehenengo iraultza posta-elektronikoa izan da, dagoeneko guztiz asimilatua eta onartua. Azken pultsoa berriz erosketak Internet bidez egitea. Sistema honek gure eserlekuetatik mugitu gabe, merkatuan egon daitezkeen produktu ugari eskuratzeko aukera ematen digu, beste inolako moduz lortuko ez dugun dinamismo eta erosotasuna eskainiz.



Jaione Irureta

bazkidea
Eusko Ikaskuntzaren denda birtua-laren ardura-duna dugu.

tuz, saltzaileak eraikitako denda birtualetik eroslearenganaino. Etorkizuna, merkataritza elektronikoa da.

Hainbat zerbitzu

Testuinguru honetan, Eusko Ikaskuntzak ere bere txokoa sortu berri du www.euskoshop.com helbide elektronikoa.

Lehen lehenik topatuko dugun orrialde nagusiak, eskaintzen diren zerbitzu desberdinetara eramango gaitu. Alde bateetik, Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak ematen dira ezagutzera. Baina, Elkartearen liburuetatik kanpo, beste hainbat argitaletxeren argitalpenak ere salmentan

jarriko dira, hala nola, Barandiaran Fundazioarenak, gaur egun lanean dauden bi Master Interaktiboaren bibliografia eta beste asko ere.

Abizenen jatorria

"Genealogia eta Heraldika" sailaren bitartez, edonoren asaba edo abizenaren jatorria aurkitzeari ekingo diogu, arlo honetan diharduten profesionalen jakintzaz baliatuz. Berriak eta eskaintzak ere izango ditugu, bakoitzari orrialde bana egokituko zaiolarik, eta amaitzeko, liburu baten topaketarako laguntzaile bezala, "Beste zerbitzuak" saila eskainiko dugu. Horren bitartez liburu bat aurkitzeko zailtasunak dituenak, formulario bat betetzea besterik ez du izango eta, ondoren, Eusko Ikaskuntzak bilaketa lanari ekingo dio obra jakin hori topatzeko.

Lau hizkuntzatan

Denda birtuala lau hizkuntzatan eskainiko da: euskaraz, espainieraz, frantsesez eta ingelesez.

Interneteko sistema honen bidez, Eusko Ikaskuntzak merkatu dinamiko, seguru eta erosoa go bat eskaini nahi du.

El-ko kideen liburuak



"Miguel Soroa. Beti gizon eta kantxan jaun!". Ander Letamendia.

La pluma del autor nos lleva con acierto a través del brillante y ejemplar discurrir de Soroa en las canchas. No es un estudio liviano, sino un tratado en profundidad de la personalidad del biografiado, centrado de forma particular en una dilatada vida de pelotari que le reportó los máximos galardones. Es una biografía rica en anecdóticos detalles del calor humano que, conocidos de primera mano, en modo alguno van en detrimento del rigor del estudio. **Edit.: Ayuntamiento de Tolosa**



"La Liga Cantábrica y el comercio del norte de España a finales del S. XIX". Carlos Larrinaga.

Con el pretexto de la Liga Cantábrica, institución privada de comerciantes vascos y santanderinos, el investigador culmina su certero retrato del comercio de la época. Las transformaciones económicas, la crisis agraria finisecular, la organización de la propia Liga, la figura de su promotor o el papel desempeñado por Irún en aquel contexto son piezas del mosaico mercantil dibujado por el autor. Pese a la variedad de aspectos reflejados, el lector nunca pierde la trama fundamental: la sólida interrelación existente entre el comercio y el ferrocarril. **Edit.: C. Larrinaga.**



Lehenengo iraultza
posta elektronikoa izan da, dagoeneko guztiz asimilatua eta onartua. Azen pultsoa, berriz, erosketak Internet bidez egitea.

Liburuak-Libros

"El-ko kideen liburuak" atalak Elkartearen Saitetako kideek Eusko Ikaskuntzatik kanpo argitaraturiko lanen berri ematen du hilabetero. Beraz, egile edo argitaletxe bakoitzarekin jarri beharra dute harremanetan aleak eskuratzeko edo haien inguruko informazioa jasotzeko interesa dutenek.

La sección "El-ko kideen liburuak" da cuenta de los trabajos publicados en otras editoriales por miembros de las Secciones de EI-SEV. Los interesados en adquirir u obtener más información sobre estas publicaciones deberán, por tanto, ponerse en contacto con los respectivos autores o firmas editoras.

INTERNET

•L'art en reseau.

Depuis un an et demi Eusko Ikaskuntza augmente sa production électronique dans la revue "Euskonews & Media". L'hebdomadaire a incorporé de nouveaux contenus et de nouvelles sections toujours avec l'objectif d'enrichir l'offre de cette publication sur la science et la culture basques. La dernière nouveauté est l'espace dédié à l'expression artistique. Il s'agit de "Art Aretoa", une salle authentique de l'art virtuel où les créateurs locaux peuvent exposer leurs oeuvres et se faire connaître en apportant une brève biographie ou curriculum.

Jusqu'à présent nous avons pu voir des sélections de peinture et de sculpture, ainsi que d'autres manifestations en relation avec l'art visuel. Les intéressés, en exhibant leur production peuvent s'adresser à la rédaction de la revue, par l'intermédiaire du courrier électronique suivant: mediateka@euskonews.com. La publication, d'autre part, continue incluant les interviews, les articles signés d'experts et les photographies anciennes, le chansonnier basque, les nouvelles, les enregistrements radio-phoniques, links, etc.



ASMOZ TA JAKITEZ

Argitaratzailea: Eusko Ikaskuntza, Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Internet: <http://suse00.su.ehu.es>. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati, Gipuzkoa). **Harpidetzak:** Asmoz ta Jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzki edo dei egin ezazu helbide hauetara: **Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Tfnoa: (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: ei-sev@sk.ehu.es **Orduategia:** 9.00-14.00/16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tfnoa: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. E-mail: ei-gasteiz@compresarial.com **Ordu:** 8.00-14.00/16.00-18.00. **Bizkaiko Bulegoa:** M. Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tfnoa: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. E-mail: ei-bilbo@compresarial.com **Ordu:** 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Gaztelu plaza, 43 bis-3. eta 4. D. 31001 Iruñea. Tfnoa: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. E-mail: gaztelu@compresarial.com **Orduategia:** 9.00-14.00/16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Saillasotako Fakultatea. Tfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. E-mail: Eusko.ikaskuntza@univ-pau.fr **Orduategia:** 9.00-12.00/14.00-19.00.